

**EUSKERAREN NAZIOARTEKO EGUNA**  
**ABENDUAK 3 de diciembre**

Mungiako Alkate-udalburuak, udal ordezkari politiko guztien adostasunagaz, honakoa adierazoten dau:

Euskeraren erabilera normalizatzeko prozesua hasi zanetik –orain dala hainbat hamarkada– bide luzea eta argi-ilunez bete egin dabe euskal gizarteak eta bere erakundeek. Tarte horretan, bitartekoak, lan-ildoak eta egoerak asko aldatu dira eta ez gitiago gizartea bera. Ezin ukatu, azken urteotan lortu dogula Euskal Herriko lurralde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea. Egun, inoiz ez bezala, euskaldunok berariazko erakundeak daukaguzala Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Aldiz, ez daukagu hizkuntza politika bateraturik, eta euskara ez dogu hizkuntza ofiziala Euskal Herriko lurralde guztietan. Zazpi lurraldeetan euskeraz eta euskaratik bizi ahal izateko zailtasunak egon badagoz oindino; ofizialtasunetik hasi, eta horren karian hezkuntzan, osasunean, administrazioan edota eguneroko eremu edozeinetan, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuak izateko unean. Faktore horreek guztiek normalizazio-beharra gizartearen ezaugarrietara eta egoera barrietara egokitu beharra ekarri dabe.

Mungiako gizartea bere aldatu da urteotan eta ezinbestekoa da apurka-apurka sortzen eta aldatzen doazen beharriaz egokitutako planak diseinatzea. Azken urteotan ohiko dogunez, oraingoan bere bidegurutzean gagoz. Mungia 2003an abiatu zan normalizazio planen bidetik. Harrezkero hainbat plan diseinatu eta garatu dira, eragin-maila eta gogobetete-maila ezberdinekoak. Eta orain, VI. Plangintzaldia amaitzeko puntuan dagoan honetan, ezinbestekoa da, ibilbide hori aztertuta, barriro diseinatzea datozen urteetarako estrategia barria (2023-2027), bai herri mailako proiektuari bai udal barrukoari jagokena.

Beraz, 2023a hausnarketa-urtea izango da, datozen lau urteetarako plan barriak (Euskera Sustatzeko Ekintza Plana, herri mailakoa, eta Erabilera Plana, udalekoa) diseinatzeko urtea. Helburua oso argi dago: ahalik eta eraginkorrenak eta ahalik eta herritarren parte-hartze handiena lortuko daben planak diseinatzea, herritarren eta administrazioaren arteko adostasunean eraikita. Izan bere, atzo bertan amaitu zan Euskaraldiak erakutsi deuskunez, alkarlan hori ezinbestekoa da dinamika barritzaile eta eraginkorrek gauzatu ahal izateko.

Udagoien honetan egin diran Euskera Foroak hausnarketa-prozesu horren abiapuntu izan dira. Herritarren eretxiak eta uste horreek jaso, urteotako esperientziagaz lotu eta Eusko Jaurlaritzan diseinatzen dabilen eredu barriagaz uztartuta, datozen urteetako erronkei erantzungo deuten planak diseinatzea izango da datorren urteko lana.

Etorkizunerako estrategiak birplanteatzeko urtea izateak, baina, ez dau esan gura generako beharra bertan behera itxiko danik. Urteotan zehar herriko hainbat arlotan eta hainbat taldegaz egindako beharrek eguneroko-eguneroko landu beharreko gaiak eta eragin-esparruak erakutsi deuskuz, eta behar horrek ezin lei etenik izan. Horrenbestez, hausnarketa eta ekina izango dira beharrezko 2023an euskeraren normalizazio prozesuan, hori eta Udalaren konpromiso sendoa.

Hori guzti hori kontuan hartuta, Mungiako Udal Batzak honako erabakiak hartu ditu:

1.- Udalak beharrezko diran baliabide ekonomiko zein tekniko guztiak jarriko ditu Euskera Sustatzeko Ekintza Plana eta Erabilera Plan barriak (herri mailakoa eta udalekoa hurrenez hurren) diseinatzeko, eta diseinu hori herritar eta gizarte-eragile guztien artean egiten dogula bermatzeko.

2.- Plan barriak diseinatzeaz ganera, orain arteko lanari bere eutsiko deuto, hau da, indarrean dituan planak ahalik eta modu eraginkorrenean gauzatzen eta garatzen jarraituko dau, plan barrien oinarriak nagusienetako bat orain arte egindako lana dalako.

3.- Udalbatza honetako kideok, herritarren ordezkari lez, gure hizkuntzaren normalizazioaren egile eta eragile izateko konpromisoa hartzen dogu eta dei egiten deusuegu herrikide guztioi, zein bere mailan, egile eta eragile izan zaitezten, familian, kalean eta lanean, guztion ahalegina behar da eta.

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de la representación política municipal, declara:

Desde que comenzó el proceso de normalización del uso del euskera – hace ya varias décadas– la sociedad vasca y sus instituciones han recorrido un largo camino lleno de luces y sombras. En este tiempo, los recursos, las líneas de actuación y la situación han cambiado mucho, y no menos la propia sociedad. No podemos negar que en los últimos años hemos conseguido dar pasos significativos hacia adelante en todos los territorios de Euskal Herria. En la actualidad, como no ha ocurrido hasta ahora, contamos con instituciones específicas tanto en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, como en Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa, y también en Nafarroa Garaia. En cambio, no tenemos una política lingüística común y el euskera no es lengua oficial en todos los territorios de Euskal Herria. En los siete territorios hay dificultades para vivir en euskera y del euskera. Desde la cuestión de la oficialidad, y en ese contexto, hasta la educación, la sanidad, la administración o cualquier espacio cotidiano son ámbitos en los que todavía hay dificultades para que se garanticen los derechos lingüísticos de las y los euskaldunes. Todos esos factores hacen necesario que el proceso de normalización deba adaptarse a las necesidades y las características de la sociedad y de las nuevas situaciones.

La sociedad de Mungia ha cambiado en estos años y es imprescindible diseñar planes adaptados a las necesidades que poco a poco van surgiendo y cambiando. Como viene siendo habitual en los últimos años, no encontramos de nuevo en una encrucijada. Mungia realizó su primer plan de normalización en 2003 y desde entonces se han diseñado y desarrollado diferentes planes con distinto grado de incidencia y satisfacción. Ahora, cuando el VI. Periodo de Planificación está a punto de llegar a su fin, resulta imprescindible, a la vista del recorrido realizado, rediseñar la nueva estrategia para los próximos años (2023-2027), tanto del proyecto para el municipio como para la administración local.

Por lo tanto, 2023 será un año de reflexión para diseñar nuevos planes que estarán en vigor durante los próximos años (Plan de Acción de Promoción del Euskera para el municipio y Plan de Uso para la administración local). El objetivo está muy claro: diseñar planes lo más eficientes posibles y con la máxima participación ciudadana, construidos en consenso entre la ciudadanía y la administración, tal y como nos ha enseñado Euskaraldia, que finalizó ayer mismo. Ese trabajo en común es imprescindible para poder llevar a cabo dinámicas innovadoras y eficaces.

Los Foros de Euskera celebrados este otoño han sido el punto de partida de este proceso de reflexión. Por tanto, el año que viene se trabajará en el diseño de planes que respondan a los retos de los próximos años. Dicho trabajo se combinará además con el nuevo modelo que está diseñando el Gobierno Vasco y con la experiencia de estos años.

El hecho de que sea un año para replantearse las estrategias de futuro no significa que se vaya a dejar de lado la labor diaria. A lo largo de estos años el trabajo realizado en diferentes ámbitos y con distintos colectivos de la localidad nos ha mostrado los temas y áreas en las que trabajar día a día, y esa actividad no puede cesar. Por lo tanto, durante este próximo año 2023 serán necesarios por parte de Ayuntamiento una reflexión y un compromiso firme en proceso de normalización del euskera.

Teniendo en cuenta lo anterior, el Pleno Municipal de Mungia adopta siguientes decisiones:

1.- El Ayuntamiento dotará de todos los recursos económicos y técnicos necesarios para el diseño de nuevos Planes de Acción y Planes de Uso para la promoción del euskera (a nivel de municipio y de administración local respectivamente), garantizando que dicho diseño se realice entre la ciudadanía y los agentes sociales.

2.- Además del diseño de los nuevos planes, se perseverará en el trabajo realizado hasta la fecha, es decir, se continuarán ejecutando y desarrollando los planes vigentes de la manera más eficaz posible, ya que uno de los pilares fundamentales de los nuevos planes es el trabajo realizado hasta la fecha.

3.- Los miembros de esta Corporación, como representantes de la ciudadanía, nos comprometemos y convocamos a todos nuestros conciudadanos y ciudadanas a ser artífices y agentes de la normalización de nuestra lengua, en sus respectivos niveles, en la familia, en la calle y en el trabajo, porque es necesario el esfuerzo de todos y todas.

Mungia, 2022ko abenduaren 3an  
ALKATEA  
  
Ager Izagirre Loroño  
ALKATEITZA